

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko uztailaren 13an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen

### Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntza ebazpena

*“Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzak arautzeko Ordenantza”* 2013ko martxoaren 21eko dataz Udal Plenoak onartu ondoren, 2013ko martxoaren 27an argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (60 zk.), ondoren 2016ko ekainaren 30eko Udal Plenoaren erabakiz aldaketa bat ezarri zitzaion 2016ko uztailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zena. Hau dela eta, Udal Plenoak 2017ko ekitaldiko aurrekontua 4069.60 eurotakoa izango dela erabaki du, 2017ko otsailaren 23an egindako bileran. Aurtengo deialdia 2017ko martxoak 7an argitaratu zen GAOn eta honen akats zuzenketa berriz 2017ko martxoaren 29an.

2017ko ekainaren 6an, 1584 sarrera zenbakiarekin, Mikel Nicolas Ciriza Perez de Albeniz jaunak, Go & On elkartearen izenean diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen: “Oñati escuchando activamente la igualdad de género dossier”. Errekerimendua bidali zitzaion eskaera osatu zezan, 2017ko ekainaren 13an, 1401 irteera zenbakiarekin. Epe barruan aurkeztu du zuzenketa eta hala ere beharrezko dokumentazioa falta zaio.

2017ko uztailaren 6an egin zen bileran Oñatiko Udaleko Berdintasunerako Batzordeak, aurkeztutako dokumentazioa eta egitasmoa aztertuta:

- Diru laguntza oinarrien 4.a puntuan zedarritutakoari jarraiki, elkarteek legez eratuta egon behar dute Elkartearen erregistro orokorrean edo Eusko Jaurlaritzako Erregistro Berezietan. Gainera, deialdia GAOn argitaratu baino gutxienez urtebete lehenago egon behar dute inskribatuta dagokion Erregistro Publikoan. 2017ko diru laguntza deialdia 2017ko martxoak 7an argitaratu zen GAOn.
- Oñatiko ASOCIACION ESTUDIANTIL "GO&ON" JUNIOR EMPRESA izeneko erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Nagusian inskribatuta dagoela 2017ko martxoaren 17an emandako ebazpenaren ondorioz, AS/G/20823/2017 erregistro zenbakiarekin (ikus erregistroko Egiagiaztagiria). Elkartearen eratze akta 2016ko irailak 26ko data du. Go & ON elkarteak ez du betetzen erakunde onuradunen deialdia argitaratzeko eguna baino urtebete lehenago Erregistro Publikoan inskribatua egoteko beharra.

Gaia aztertu ondoren eta Berdintasunerako Batzordearen irizpena kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du *GO&ON" JUNIOR EMPRESA* elkartearen eskaera ez onartzea eta diru laguntzarik ez ematea, oinarrietan jasotako 4.a. baldintza ez betetzeagatik.